



TXOSTEN METEOROLOGIKOA –2020KO OTSAILA

Otsaila oso beroa eta oso lehorra izan zen. Izan ere, Mediterraneo isurialdean datuak ditugunetik lehorrenen artean dago eta EAEn beroenen artean dago, baina hala ere ez ziren errekorrak hautsi. Muturreko egoerei dagokienez, otsaila lasaia izan zen; itsaso zakarragatik igorri ziren abisu gehienak. Bestalde, azpimarragarria da, elurragatik ez zela abisurik igorri. Intsolazioa ere aipagarria da, izan ere otsailean ohikoa dena baino % 25-50 handiagoa izan zen.

Prezipitazioa

Otsaila oso lehorra izan zen EAE osoan. Gipuzkoa ipar-ekialdeko mendi inguruetan pilatu zen prezipitazio gehien. Bi estazio besteengandik asko urruntzen dira: Eskas (185.5 mm) eta Añarbe (102.1 mm). Gero, kostaldeko estazioetan pilatu zen prezipitazio gehien, bai Gipuzkoan (Behobia 76.7 mm, Miramon 74.8 mm, Lasarte 74.8 mm), bai Bizkaian (Muxika 72.8 mm, Iruzubieta 70.1 mm, Oleta 63.2 mm). Mediterraneo isurialdean prezipitazioa oso urria izan zen, estazio oso gutxitan gainditu ziren 10 mm-ak (Salvatierra 10.4 mm, Zambrana 7.2 mm, Páganos 5.4 mm, Kanpezu 2.9 mm).

Hilaren 24ra arte kostaldeko zenbait lekutan giroa erabat lehorra izan zen, eta hilabetea horrela amaituko zela zirudien, baina hilaren 25etik 27ra pilatutako euriari esker otsaila ez zen hain lehorra izan. Hala eta guztiz ere, ia kantauri isurialde osoan, pilatutako prezipitazioa ez zen iritsi ohiko balioaren %50era.

Mediterraneo isurialdean egoera larriagoa izan zen, han ohikoa denaren % 20 baino gutxiago pilatu baitzen. Azken urteetako otsailik lehorrena izan zen. Izan ere ia bi hamarkada atzera egin behar da otsail lehorragoak topatzeko; 2000koa eta 1992koa soilik izan ziren lehorragoak.

Euri-egunen (≥ 1 mm) kopurua oso txikia izan zen, kostaldean sei eta zortzi artekoa, eta Araba erdialdean 3 ingurukoa. Ohiko balioak, hurrenez hurren, 12 eta 10 dira. Euri-egun horiek hilabete osoan zehar sakabanatu ziren.

Hilaren 26a izan zen egunik euritsuena eta zenbait lekutan prezipitazioa oso ugaria izan zen, adibidez Aiako harriaren inguruan (Eskas 51.8 mm, Añarbe 37.4 mm). Ondoren, 30 mm baino gutxiago pilatu ziren Gipuzkoa barnealdean (San Prudentzio 27.2 mm, Bidania 26.9 mm) eta Bizkaiko kostaldeko zenbait lekutan (Iruzubieta 26.6 mm, Muxika 21.7 mm). Hurrengo egunean kantauri isurialdean euria egiten jarraitu zuen. Eskas estazioan berriro ere 30 mm baino gehiago pilatu ziren (Eskas 37.2 mm, Muxika 24.6 mm, Iruzubieta 20.7 mm).

Aipatzekoa da ia ez zuela elurrik egin hilabete osoan. Hilaren 25ean azken orduetan eta hurrengo egunean egin zuen prezipitazioak mendi gailur altuenak soilik zuritu zituen apur bat.

**Taula 1: Azken urteetan otsailean pilatutako prezipitazioa, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	31.1	33.2	212.4	168.0	95.3	203.8	158.8	292.1	62.4	25.4
Lasarte	74.8	71.9	280.8	230.6	132.3	212	297.5	443.4	163.2	40.4
Arrasate	30.9	65.5	281.7	282.8	128.0	289.6	229.1	442.7	114.4	31.6
Abetxuko	7.2	49.5	129.9	96.9	72.5	134.3	95.5	226.7	24.6	16.5
Párganos	5.4	29.6	58.0	68.3	60.4	57.2	47.1	133.7	13.9	31.2

Temperatura

Otsaileko batez besteko tenperaturaren arabera, otsaila EAEn oso beroa izan zen. Kostaldean batez besteko tenperatura 12 °C-tik gorakoa izan zen eta Arabako Lautadan 8 °C ingurukoa, hau da, 1981-2010 denboraldi normalaren batezbestekoa baino 3 °C altuagoa EAE osorako. Horregatik, 2019koa historiako otsailik beroenen artean dago, nahiz eta errekorra 1990koak izan.

la egun guztiak beroak izan ziren, hilabetearen amaieran soilik izan genuen egun hotzen bat. Horrez gain, zenbait egunetan anomalia positiboak ohiz kanpokoak izan ziren, batezbesteko normala baino 10 °C altuagoak. Horixe gertatu zen, adibidez, hilaren 3an, eta horrez gain kantauri isurialdean hilabete osoko tenperaturarik altuenak neurtu ziren (Oleta 28 °C, Miramon 27.1 °C, Arteaga 26.8 °C, Oiartzun 26.4 °C). Mediterraneo isurialdean, berriz, hilaren 24a izan zen egunik beroena (Kanpezu 22.9 °C, Salvatierra 22.8 °C, Moreda 22.8 °C, Antoñana 22.5 °C).

Bi kasu horietan neurtutako balioak erabat ez ohikoak izan ziren, eta 2018ko otsailaren 27an izandako errekorretatik oso hurbil geratu ziren. Bi kasuetan zerua oskarbi egon zen, baina egoera sinoptikoak ezberdinak izan ziren. Lehenengo kasuan, Iberiar penintsulan zegoen antizikloiaren ondorioz hego-mendebaldeko haize zakarra ibili zen eta *foehn* izeneko efektua gertatu zen. Bigarren kasuan, presio-gradiente txikia zen eta haizea bare egon zen. Gauzak horrela, hilaren 18tik 24ra beste fenomeno batzuk izan zuten garrantzia: inbertsio termikoa eta anplitude termikoa oso handiak izan ziren, zenbait kasutan anplitude termikoa 20 °C baino handiagoa izan zen. Egunduetan Mediterraneo isurialdean eta kantauri isurialdeko zenbait tokitan izotza egin zuen, baina eguerdirako asko epeltzen zuen.

Egun batetik bestera aldaketa handirik izan ez arren, izotz handiena hilaren 20an bota zuen (Kanpezu -4.8 °C, Pagoeta -4.5 °C, Subijana -4.5 °C, Navarrete -4.4 °C). Kantauri isurialdean ere izotza egin zuen (hilaren 23an, Balmaseda -0.8 °C, Arrasate -0.4 °C; hilaren 19an, Berastegi -2.3 °C). Egunduetan aparte, hilaren 5ean eta 6an ere izotza egin zuen barnealdeko zenbait lekutan (hilaren 5ean, Subijana -4.3 °C, Pagoeta -3.6 °C, Ozaeta -3.5 °C, Berastegi -1.4 °C, Arrasate -1.2 °C, Balmaseda -0.9 °C).



Aipatzekoak izan ziren hilaren 16an kantauri isurialdean izandako temperatura minimo altuak, Dennis depresio indartsuaren eraginez hego-mendebaldeko haize zakarra ibili baitzen gurean. Kostaldeko temperatura minimoak 18 °C-tik gorakoak izan ziren (Mungia 18.7 °C, Berriatua 18.6 °C, Arteaga 18.6 °C, Zarautz 18.3 °C).

Tenperatura altuez gain, intsolazioa ere urteko sasoi horretan ohikoa dena baino askoz altuagoa izan zen. Batezbestekoa 150 ordukoa izan zen, hau da, ohikoa dena baino % 25-50 altuagoa.

Taula 2: Otsailen, azken urteetan, neurtutako batez besteko temperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2020	2019	2018	2017	2016	2015	2014	2013	2012	2011
Deusto	12.9	11.4	9.9	8.4	12.5	9.2	12.1	10.4	10.0	10.2
Lasarte	12.3	10.9	9.1	5.9	10.9	7.9	10.9	8.8	8.6	8.4
Arrasate	10.1	8.8	6.9	4.0	8.4	5.4	8.6	6.5	6.3	6.5
Abetxuko	8.2	6.3	5.4	2.5	6.8	3.7	7.2	5.4	5.1	5.0
Párganos	9.0	7.2	6.0	4.1	7.0	4.4	6.5	6.2	5.7	5.1

Haizea

Haizeari dagokionez, hirugarren koadranteke fluxua nagusitu zen eta zenbait unetan indartsua izan zen. Hilaren 17ra arte, hainbat egunetan haize-bolada oso gogorak (≥ 70 km/h) izan ziren. Hilaren 18tik 24ra zubi antiziklonikoa eta presio-gradiente txikiko beste egoera batzuk gailendu ziren eta barealdia izan zen.

Hilaren 15ean, gauean, eta hilaren 16an, egunaren lehenengo partean, Dennis depresio indartsuaren eraginpean, haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten. EAEko ipar-mendebaldeko haizeguneetan hego-mendebaldeko bolada bortitzak izan ziren (Matxitxako 129.6 km/h, Orduña 123.1 km/h, Cerroja 122.8 km/h) eta haizeguneak ez diren zenbait tokitan boladek 80 km/h-ko abiadura gainditu zuten (Deusto 84.2 km/h, Galindo 83.2 km/h, Zizurkil 81.7 km/h, Zegama 80.3 km/h).

Gero, hilaren 26ra arte haize-boladek ez zuten 100 km/h-ko atalasea gainditu eta gainera oso puntuala izan zen (Matxitxako 111.2 km/h, Oiz 101.2 km/h). Kasu hartan iparraldeko haizearekin neurtu ziren haize-bolada oso gogorak, Azoreetako antizikloiarekin.

Analisia

Otsailaren 1etik 3ra

Otsailaren hasieran udaberriko eguraldi egonkorra gailendu zen. 500 hPa-eko mailan zirkulazio zonal izan zen nagusi eta hilaren 1ean lurrazalean fronte hotz



oso ahul bat igaro zen. Hego-mendebaldeko haizea nagusitu zen eta euri txikia egin zuen. Frontearen ondoren, eguraldiak azkar egin zuen atertzera. Hilaren 2an eta 3an Afrikako iparraldean jatorria zuen gailur subtropikal bat zabaldu zen gurean eta hilaren 3an 850 hPa-eko mailan 12 °C ingurura igo zen airearen temperatura. Lurrazalean presio altuak gailendu ziren; antizikloiaren erdigunea Penintsulan zegoen 1033 hPa-eko presioarekin. Tenperaturak nabarmen egin zuen gora egun haietan, batez ere azken egunean.

Otsailaren 4a

Hilaren 4ean fronte hotz batek egonkortasuna hautsi zuen Kantauri itsasoa zeharkatu zuenean -antizikloi bat zegoen Britainiar uharteen eta Kantauri itsasoaren artean-. Haizea iparraldera edo ipar-ekialdera aldatu zen eta aire-masa hotzago bat zabaldu zen gurean, 850 hPa-eko mailan -2 °C inguruko temperaturarekin. Zerua oso hodeitsu geratu zen eta iparraldean euri txikia egin zuen; temperatura aurreko egunekoa baino 12 °C baxuagoa izan zen.

Otsailaren 5etik 7ra

Hilaren 5ean presio altuak indartu egin ziren. 500 hPa-eko mailan omega itxurako blokeo antiziklonikoa ezarri zen, Iberiar penintsulatik Britainiar uharteetaraino. Hilaren 5ean antizikloiaren erdigunea Ingalaterrako hegoaldean kokatu zen, 1039 hPa-eko presioarekin. Hilaren 6an Alpeetan kokatu zen, 1040 hPa-eko presioarekin. Hilaren 5etik 7ra zerua hodei gutxirekin egon zen. Aire-masa aldatuz joan zen eta hilaren 6an 850 hPa-eko mailan temperatura 5-6 °C ingurukoa izan zen. Hego-haizea nagusitu zen eta tenperaturak nabarmen egin zuen gora. Tenperatura minimoak, ordea, baxuagoak izan ziren eta barnealdeko hainbat tokitan izotza egin zuen.

Otsailaren 8an

Presio altuak Europa ekialdean kokatu ziren eta mendebaldean zirkulazio zonal indartsua ezarri zen. Egoera haren ondorioz, hilaren 8an fronte hotz batek Kantauri itsasoa zeharkatu zuen. Egunaren erdiko orduetan euri txikia egin zuen eta temperatura nahikoa jaitsi zen.

Otsailaren 9tik 18ra

Hilaren 9tik aurrera Europa mendebalde osoan fluxu zonala indartu egin zen. 50 °I paralelotik depresio sakonak igaro ziren. Aipagarriena hilaren 15etik 17ra pasa zen Dennis izenekoa, zonalde horretan inoiz behatutako bigarren depresiorik sakonena, 920 mb-eko minimoarekin erdigunean. Horrez gain, 40 °I paraleloaren inguruan Azoretako antizikloia kokatu zen eta ekialdera zabaldu zen, 1030 hPa-eko presioarekin. Haizea zakar ibili zen, noizbehinka ufada bortitzak izan ziren eta itsasoan denborale oso gogorra eragin zuen. Euri iraunkorra egin zuen eta Britainiar uharteetan uholdeak gertatu ziren, batez ere Dennis izeneko depresio hori pasa zenean.



Penintsulan ez zuen eragin handirik izan egoera hark eta presio altuak izan ziren nagusi. Eguraldia egonkorra izan zen, hilaren 11an, 13an eta 17an izan ezik; egun haietan fronte hotz txikiak igaro ziren Kantauri itsasoan barrena eta zerua hodeitsu egon zen, euri askorik egin ez zuen arren. Zirkulazio zonal indartsuak hondoko itsasoa altxatu zuen eta kostaldean kalteak eragin zituen. Temperatura ohikoa dena baino altuagoa izan zen, 850 hPa-eko mailan 5-7 °C ingurukoa. Hilaren 16an hego-mendebaldeko haizea indartu egin zen eta tenperaturak gora egin zuen, batez ere iparraldean; han maximoak 25 °C ingurukoak izan ziren.

Otsailaren 19tik 24ra

Hilaren 19tik aurrera Europa iparraldean zirkulazio zonalak ahultzera egin zuen, baina gurean eguraldiak egonkor jarraitu zuen. Azoreetako antizikloia Iberiar penintsulan zabaldu zen eta presio altuen gune berri bat sortu zen. Hilaren 21ean aska txiki bat pasa zen, baina ez zuen eragin handia izan gurean. Heldu aurretik, depresio askatua bilakatu zen aska eta, gero, Kanarietara mugitu zen. Gainerako egunetan antizikloia gainean izan genuen eta giroa egonkorra izan zen; brisa ibili zen gurean.

Otsailaren 25etik 29ra

Hilaren 25etik aurrera aldaketak gertatu ziren. 500 hPa-eko mailan bi askek eragina izan zuten EAEn, lehenengoak hilaren 25ean eta bigarrenak 29an. Euria egin zuen eta 850 hPa-eko mailan aire hotza agertu zen. Bi aska horien artean, hilaren 28an gailur txiki bat sortu zen eta egonkortzera egin zuen egun batez.






Oinarrizko datu estatistikoak

Taula 3: 2020ko otsaileko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

Estazioa	Batez besteko Temp. °C	Temp. max. °C	Temp. max.abs. °C	Temp. min °C	Temp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max l/m ²	Euri- egunak
Deusto	12.9	17.1	25.3	9.4	4.8	0	31.1	6.3	6
Lasarte	12.3	17.0	26.0	7.9.	1.7	0	74.8	22.4	8
Arrasate	10.1	16.1	23.5	5.2	-1.2	3	30.9	11.2	6
Abetxuko	8.2	15.2	22.4	1.9	-3.1	9	7.2	3.4	3
Páganos	9.0	14.3	21.5	4.2	-0.6	1	5.4	2.3	2




Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Pilatutako prezipitazioa
 Temperatura minimoa
 Batez besteko temperatura
 Temperatura maximoa



Prezpitazioaren jokaera





Muturreko egoerak

Otsailean 31 abisu hori igorri ziren: 3 haizeagatik haizeguneetan, 1 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 7 izotzagatik, 11 olatuen altueragatik nabigaziorako eta 9 kostaldeko inpaktuagatik.

Horrez gain, 3 alerta laranja igorri ziren kostaldeko inpaktuagatik.

- Hilaren 5ean presio altuak indartu egin ziren. 500 hPa-eko mailan omega itxurako blokeoa sortu zen Iberiar penintsulatik Britainiar uharteetaraino, eta hurrengo egunetan indartu egin zen. Lurrazalean, hilaren 5ean presio altuen gunea Ingalaterrako hegoaldean kokatu zen. Hilaren 5etik 7ra zerua hodei gutxiarekin egon zen, 7an goi-hodeiak ugariak izan ziren. Temperatura minimoek behera egin zuten, beraz, eta hilaren 5ean eta 6an barnealdeko hainbat tokitan izotza bota zuen.

Asteazkena, hilak 5: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 6 Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik 00etatik 10etara ordu lokala.

Estazioa	Hilak 5	Estazioa	Hilak 6
Pagoeta	-2.2	Subijana	-4.3
Sarria	-2.2	Pagoeta	-3.6
Ozaeta	-2.1	Ozaeta	-3.5
Salvatierra	-2	Tobillas	-3.5
Albaina	-1.9	Albaina	-3.2
Antoñana	-1.9	Etura	-3.1
Subijana	-1.9	Trebiño	-3.1

- Hilaren 9tik aurrera Europa mendebalde osoan zirkulazio zonal indartu egin zen. 50ºI paralelotik depresio indartsuak pasa ziren, haien artean aipagarriena hilaren 15etik 17ra igaro zen Dennis izenekoa. Depresio hura zonalde horretan inoiz behatutako bigarren depresiorik indartsuena izan zen, 920 hPa-eko presio minimoarekin erdigunean. 40ºI paraleloan Azoreetako antizikloia kokatu zen, 1030 hPa-eko presioarekin. Iberiar penintsula presio altuen babesean geratu zen, presio baxuen eraginetik kanpo. Hala eta guztiz ere, zirkulazio zonal indartsu hark hondoko itsasoa altxatu zuen eta kostaldean kalteak eragin zituen.

Hilaren 9an bigarren itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6$ m eta $I_{max}=6.4$ m izan ziren. Hilaren 10ean, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.2$ m, bigarrean $I=6$ m eta $I_{max}=6.4$ m. Pasaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.3 m-koa izan zen. Hilaren 11an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka



egiteko indizeak $I=6.9$ m eta $I_{\max}=7.5$ m izan ziren, bigarrenen $I=6.7$ m eta $I_{\max}=7.2$ m. Pasaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.9 m-koa izan zen. Hilaren 12an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.8$ m eta $I_{\max}=7.3$ m izan ziren, bigarrenen $I=6.3$ m eta $I_{\max}=6.8$ m. Hilaren 13an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.3$ m eta $I_{\max}=6.7$ m izan ziren eta Pasaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.2 m-koa izan zen. Hilaren 14an, bigarren itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.3$ m eta $I_{\max}=6.8$ m izan ziren eta Pasaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.2 m-koa izan zen. Hilaren 15ean, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.4$ m eta $I_{\max}=7.1$ m izan ziren, bigarrenen $I=5.8$ m eta $I_{\max}=6.5$ m. Hilaren 16an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.8$ m eta $I_{\max}=6.3$ m izan ziren. Hilaren 17an Pasaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.5 m-koa izan zen, 18an 3.4 m-koa.

Estazioa	Hilak 9
Trebiño	-0.6
Ozaeta	-0.2

Igandea, hilak 9: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 04etatik 05etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 16etatik 18etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 10: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 16etatik 19etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 11: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Alerta Laranja itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 20etara ordu lokala.

Asteazkena, hilak 12: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 18etatik 20etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 13: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 18etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 19etatik 21etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 14: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 20etatik 21etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 15: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 09etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 21etatik 22etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian 21etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 16: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian 00etatik 15etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 17: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Asteartea, hilak 18: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 18etara ordu lokala.



- Hilaren 19tik aurrera Europa iparraldean zirkulazio zonalak ahultzera egin zuen eta 24ra arte presio altuak gailendu ziren gurean. Hilaren 23an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.3$ m izan ziren, bigarrenen $I=5.8$ m eta $I_{max}=6.4$ m. Hilaren 24an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.3$ m izan ziren.

Estazioa	Hilak 19	Estazioa	Hilak 22	Estazioa	Hilak 23	Estazioa	Hilak 24
Salvatierra	-4.1	Pagoeta	-3.7	Pagoeta	-4.2	Pagoeta	-4.4
Ozaeta	-3.8	Salvatierra	-2.8	Ozaeta	-3.7	Salvatierra	-4.1
Espejo	-2.8	Subijana	-1.9	Abetxuko	-2.9	Navarrete	-3.8
Abetxuko	-1.6	Abetxuko	-1.5	Sarria	-2.1	Otxandio	-3.1

Asteazkena, hilak 19: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 22: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala.

Igandea, hilak 23: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 04etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 16etatik 18etara ordu lokala.

Astelehena, hilak 24: Abisu Horia muturreko tenperatura baxuak/izotzagatik Araban 00etatik 10etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 04etatik 06etara ordu lokala.

- Hilaren 25etik aurrera 500 hPa-eko mailan bi aska pasa ziren EAEn barrena, bat hilaren 25ean, bestea 29an. Euria egin zuen eta 850 hPa-eko mailan aire hotza agertu zen. Hilaren 26an Pasaiako portuan behatutako olatuen altuera adierazgarria 4.3 m-koa izan zen.

Haizegunea	Hilak 29 (km/h)	Haizeguneak ez diren tokiak	Hilak 29 (km/h)
Punta Galea	129	Deusto	87
Cerroja	125	Saratxo	81
Orduña	123	Galindo	80
Oiz	103		
Zarautz	90		

Asteazkena, hilak 26: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 12etatik 24etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 29: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 06etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Bizkaian 00etatik 06etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: hileko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* hileko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen hileko batez bestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* hileko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* hilean, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* hilean pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* hilean, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* hilean, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen dueneko egun kopurua.

Temperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen $\%20$ ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1971-2000ko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologi gidan aurki daiteke:

http://www.euskalmet.euskadi.net/s07-5893/eu/contenidos/informacion/manual_estilo/eu_9900/eu_manual.html.

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeke daude.